

2003ko bigarren hiruhilekoan, jaiotzak %8 gehitu ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean

Aurtengo lehenengo hiruhilekoaren aldean ere %10 gehitu dira

2003ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEn 4.980 jaiotza erregistratu ziren, iazko aldi berean baino %8 gehiago, Eustatek landutako datuen arabera. Lurraldeka, Araban 763 ume jaio ziren, %16,7ko hazkundearekin; Bizkaian 2.504 jaiotzarekin, hazkundearen ehunekoa %5ean kokatu zen; Gipuzkoan, berriz, %9ko tasa lortu zen 1.713 jaiotzarekin.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2003ko lehen hiruhilekoan, erdiak baino gehiago, 2.826 haur, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.877 haur (%37,7) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi dira; eta hirugarren eta ondorengo seme-alabak %5,6ra iritsi dira. Gipuzkoan (%45,8), bigarren eta ondorengo seme-alaben kopurua Euskal AEko batez bestekoa (%43,3) baino handiagoa izan da, eta hori herrialde historiko horretan baino ez da gertatu.

Lau jaiotzatik hirutan amak 30 urtetik gora ditu

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, haien artean gertatu baitira erditzeen ia erdiak. Talde horren ondotik, hurrengo goragoko taldea dago, hau da, 35-39 urte artekoa (%24,7); 25-29ko taldea beherago geratu da, erditzeen %18,7 ekarri baititu. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amatzen direnak %5,1 dira, eta 40 urtez gorakoen taldeak, berriz, jaiotzen %3,7 besterik ez du ekarri.


Ezkontzaz kanpo jaioek guztizkoaren %18,7 hartzen dute, eta puntu bat igo dira 2002ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Bizkaia (%18,4) izan da Euskal AEko kopuru orokorra baino txikiagoa izan duen lurralde bakarra. Talde horren erditze-adina haurrak eduki dituzten amen multzo osoarena baino txikiagoa da, ama ezkongabeen %17,6 14 eta 24 urte bitartekoak baitziren.

1. Taula: Bizirik jaioak Euskal AEn. Alderatze-aula

	2003ko 2. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2003ko 1. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2002ko 2. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.980	100,0	4.525	100,0	4.610	100,0
Araba	763	15,3	592	13,1	654	14,2
Bizkaia	2.504	50,3	2.320	51,3	2.385	51,7
Gipuzkoa	1.713	34,4	1.613	35,6	1.571	34,1
Amaren adinaren arabera						
< 25 urte	257	5,2	253	5,6	243	5,3
25 - 29 urte	929	18,7	910	20,1	936	20,3
30 - 34 urte	2.374	47,7	2.048	45,3	2.098	45,5
35 - 39 urte	1.232	24,7	1.164	25,7	1.191	25,8
>= 40 urte	188	3,8	150	3,3	142	3,1
Jaiotza-hurrenkera						
Lehenengoa	2.826	56,7	2.622	57,9	2.587	56,1
Bigarrena	1.877	37,7	1.677	37,1	1.747	37,9
Hirugarrena edo gehiago	277	5,6	226	5,0	276	6,0

Iturria: EUSTAT

1. grafikoa: Jaiotzen hilez hileko mugimendua



Iturria: EUSTAT

oin.,100 =b.b.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martin Gonzalez Hernandez

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es